

Ekaina 9-29/Donostia Arteleku
Ekaina 30-Uztaila 20/Porto Fundação Serralves

Intro

Mugatxoan tarteko eremuaren ideian oinarrituta eratu da, eremua kodeek zirkulatzeko leku gisa ikusita, pairatzen dituen mugimendu eta lekualdaketa etengabeek behin eta berriz definitua. 1998. urtean abian jarri zen proiektu hau materiagabetasuna bitarteko duen gorputzaren mintzaldien arte-adierazpenetan kokaturik dago, eta eskaintzen dituen lanak egoera iragankor batean egintzak eraldatze gisa eta esanahia ekoizte moduan agertzen zaizkigu.

Mugatxoan '08 iragaite legez proposatzen da, espazio batetik bestera joateko egintzan, eta baita lekualdaketa hori gertatzen den igaroleku eta igarotze-denbora legez ere.

Egitaraua hiru multzo nagusitan banatuta dago: Lantegiak, Egonaldiak/Ekoizpenak eta Aurkezpenak. Programatuta dauden jardueren bidez eduki praktikoa eta teorikoa ekoizti nahi dira, eta ekoizten eta hausnartzen jarduten duten partaideek elkarren artean antolatuko dituzte aipatutako jarduerak.

Egitaraua ekainaren 9tik uztailearen 20ra bitartean burutuko da, Donostiako Artelekun eta Portoko Serralves Fundazioan, biak izan baitira, 2001. urteaz geroztik, proiektuaren ekoizle elkartuak. Aurten, gainera, beste zentro bat gehituko da, Gijongo Laboral Escena delakoa hain zuzen ere, eta bertan, irail osoan, egonaldiko ekoizpenak burutuko dira.

Dei egiten diegu ikusizko arteetan, dantzan eta *performancean* interesatuta dauden eta beren artelanei dagoeneko ekin dieten artista gazte guztiei, **Alice Chauchat**, **Eric Duyckaerts**, **Juan Domínguez** eta **Massimo Furlan-Claire de Ribaupierre** artistek gidatuko dituzten lantegietan parte hartu ahal izateko.

Générique performance-proiektua da, izaera irekia duena eta hainbat antzezleren interes eta ekarpenen arabera garatzen dena. Bere oinarria jolas-egitura da, iritzien sorrerak eta sorkuntza kolektiboak eratuta: antzezleek eta publikoak eztabaidatu egiten dute, antzezleek *performancea* antzezten bukatu eta ikusleek *performance* hori ikusi berri balute bezala. Eztabaida horrek ahalbidetzen die *performancea* elkarrekin asmatzea. Antzezleek hainbat tresna erabili eta garatzen dituzte, egoeraren fikzioa hobetzeko, jolasari aurre egiteko eta aurrera jarraitzeko asmoz. Oinarrizko muntaketa zein erabilitako tresnak aztertuko ditugu etengabeko saioan; tresna gehiago sortuko ditugu, zer antzezlan egin eta lan hori nola ondo egin asmatu eta aurkikuntzak trukatu ditugu. *Générique everybody's*-en proiektuetako bat da.

Everybody's arte-plataforma irekia da, *performancea* ulertzea hedatzen lagun dezaketen ideiak eta estrategiak partekatzeko asmotan sortua. Besteak beste lantegietako jolas, *performanceen* partitura eta testu multzo batek osatutako www.everybodystoolbox.net web orrian oinarrituta dago plataforma.

Everybody's parte-hartzeen eta aldaketen bidez eta jendeak bere konpromisoaren arabera egiten dituen ekarpenen bidez aurrerantz doan proiektua da. Jendeak *performancearen* esparruan inbertitzeko aukera bat da, *performancean* banaka aritzea baino haragoko zerbait.

Performer eta koreografoa da, CNSM (Lyon) eta PARTS zentroetan trebatua. Bere *performanceak* nazioartean aurkeztu ditu: *Quotation marks me*, *choreographies*, *A number of Classics in the Age of Performance* izenburukoak Vera Knolle-rekin batera, *J'aime* Anne Juren-en lankidetzarekin, *Crystall* Alx Eynaudi-ren lankidetzarekin, eta *The love piece* Kroaziako 9 artistaren lankidetzarekin; era berean, parte hartzen du *PAF* www.pa-f.net eta *everybodys* www.everybodystoolbox.net proiektuen garapenean.

Horrez gain, Alice beste kide batzuen laguntzailea da, antzezlea, eta abestu, idatzi eta irakatsi egiten du.

www.theselection.net/dance

Générique

Artistaren egiatasuna/itxurakeria

Gure topaketan *performance*ari buruzko hausnarketa historiko eta praktikoa egingo dugu, *performance* terminoaren esanahi zabalena aintzat hartuta. Gai hau modu berezian egokitzen zaio gaur egungo galdera bati, hots: artea burutzen den bitartean, artistak artearen «balioztapenaren» ingurunean agertzen duen jarrerari buruzko galderari. Aintzakotzat hartuko dugu, bereziki, gaur egungo artearen esparruko mugen porositatea, gure esparruan egiatasunaren eta itxurakeriaren arteko bereizkuntzak ezaugarri duen zehaztugabetasuna. *Artistaren egiatasuna/itxurakeria* izenburuko topaketaren izaera historiko eta adibide-izaeraz gain, topaketa egitean dugun asmoa artista gazteen jardunean oinarrituko da, egia baita gaitasuna dugulako plantak egitearen poderioz (itxurakeria), azkenean gaitasun hori geureganatu egin dezakegula (egiatasuna).

Liejan jaio zen 1953. urtean. Eskolak ematen ditu Villa Arson-en (Nizan). Bere lanean, umorez antolatzen ditu arte plastikoak eta jakintza exogenoak, hala nola, zientziak, zuzenbidea, logika matematikoa, eta abar. Horrez gain, antzekotasun eta lotura-irudiak aztertzen jardun du.

Askotan baliatzen ditu bideoa eta hitzaldia bitarteko gisa, baina ez du zalantzarik izaten tradizionalagoak diren bitarteko guztiak erabiltzeko orduan. 2007ko Veneziako Bienalean, Belgikako pabiloian izan zen. Liburu hauek idatzi ditu: *Hegel ou la vie en rose*, l'Arpenteur, Gallimard, 1992, eta *Théories tentatives*, Léo Scheer, 2007.

<http://documentsdartistes.org/artistes/duyckaerts>



Alzheimer & Co, 2005.
Critique du couple, 2005.



Todos los buenos espías tienen mi edad, 2002.

Nondik... nora (Idazketatik koreografiara) proiektuan arituko da. Funtsean, idazketa fisikoki gauzatzeko unea aztertuko da proiektu horretan.

Koreografiaren bidez, gaia berriz aztertu nahi du, gorputzaz baliatuta; eginkizun hori ez da beti zinetikoa denak agintzen duenaren menpe, eginkizun horrek solasean jarduten baitu beti teoria kritikoarekin eta filosofiarekin.

Koreografia mugimenduaren idazketatzat jotzen badugu, argi dago koreografoak kode batetik besterako joan-etorrian lan egiten duela.

Nola ulertzen dugu mugimendua? Nola idazten dugu? Nola gauzaten dugu?.

Ikerketaren oinarria ahozko eta idatzizko mintzairaren eta gorputzaren mintzairaren artean –hau da adimen intelektualaren eta adimen ez-intelektualaren artean– dagoen harremanari buruzko azterketa da.

Mintzairaren azterketan funtsatuta –mintzaira sistema formal gisa–, mugimendua adierazten duten aditzak landuko ditugu eta aditz horien kontzeptuen dekonstrukzioa, beren esanahietan inplizitu dauden ekintzak kontuan izanda, edukian hasi eta keinuan bukatuta.

Performer eta koreografoa da, eta ballet, gaur egungo dantza eta bideoa ikasi ditu Espainian eta Estatu Batuetan. Hainbat beka lortu zituen New Yorkeko Movement Research-en ikasteko, eta horrez gain hainbat teknika eta yoga ere ikasi zituen hiri horretan. 1987. urtez geroz, arte-laguntzaile lanetan aritzen da hainbat koreografo eta konpainiarekin, Europan. 1992. urtean bere lanak garatzen hasi zen, besteak beste: *The taste is mine* (1999), *Todos los buenos espías son de mi edad* (Espioi on guztiak nire adinekoak dira) (2002), *The application* (2005), *Seven attempted escapes from silence (Opera)* (2005), *Shichimi Togarachi* (2006), *Todos los buenos artistas de mi edad están muertos (Nire adineko artista on guztiak hilda daude)* (2007). *De la ... A la ...* (Nondik... nora) (2007).

Egonaldiko artista izan zen Podewil-en (Berlin), 2004. eta 2005. urteak bitartean.

2003. urteaz geroztik, Madrilgo In-Presentable/La Casa Encendida emanaldiaren zuzendaria eta programatzailea da.



Old Station Heroes.

Gure proiektuak irudien batuketatik sortuak dira; irudi horietako batzuk barne-barneko memoriari atxikirik daude, eta beste batzuk orainaldiarekin uztartuta, gaur egungo historian gaindi doazela. Arian-arian, irudi horien artean, esanahien eta formaren loturak ehuntzen dira: bi irudi gainjartzeak hirugarrena sortzen du. Jarraian, dramaturgiari lotuta dagoen fase zehatzago bati ekiten diogu: esanahia identifikatzeko eta esanahi hori agerian jartzeko eginkizunari. Horrela, azpian datzan kontaketa eratzen dugu.

Ererikoa, irrigarritasunaren funtsezko moldea, behin eta berriro agertzen da proiektu guztietan. Horren bidez, tragikoa denari arrazoibiderik gabe utzi eta, paradoxikoki, nabarmendu egiten dugu tragikotasun hori.

Irudien iraupena funtsezko datua da: lan gehienen azpigituluak *irudi luze(ak)* dira. Irudi luzeak paradoxazko gertaera baten ondorioz sortzen dira, izan ere, irudiek ez dute zehaztutako iraupenik. Irudiak irudi soilak dira, ez baitago hitzik edo ikusizko aldaketa ikusgarririk. Irudi mugiezina dira ia. Irudiak osatzen dituzten ekintzak oso errazak dira (keinu bat, mugimendu bat, begirada bat), ikusleen aurrean luze mantentzen direnak eta ikusleak sartzera, aktibatzen, zentzua ematera behartzen dituztenak.

Gure asmoa gai horiek guztiak lantzea da, eta parte-hartzaileekin batera kontaketa bat eratzeko moduak esperimentatzea.

Massimo Furlan. Massimo Furlanen proiektu guztien hari gidaria biografia da. Istorio arrunt eta hutsal bat: guraso italiarrak dituen eta Suitzan jaio den haurrena; beste edozein bezalakoa den nerabearena. Ez dago norberari buruz zerbait berezia balitz bezala hitz egiteko borondaterik. Gogora ekartzen dituen oroitzapenak guztionak bezalakoak dira, 60ko hamarkadaren erdialdean jaiotako belaunaldiarenak bezalakoak behinik behin. Lan horren bidez memoria lantzen da. Dena hasten da beti anekdota batez, elementu bakunez eratuta dagoen benetako istorio batez. Anekdotatik kontakizunera igarotzen da, fikzioa eraikitzen. Generoen mugak zalantzan jarri gabe, Furlanen *performance*ak “irudi luzeetan” antolatuta daude. Irudiak ia mugiezina dira. Ekintzak oso errazak dira (keinu bat, mugimendu bat, begirada bat), ikusleen aurrean luze mantentzen direnak, eta ikusleak sartzera, aktibatzen, zentzua ematera behartzen dituztenak: ikusleek beren kontakizuna zertzen. Massimo Furlanek, bere lanetan, zalantzan jartzen du antzezpeneren ekintza: ikonoak berrikusten ditu, porrota eta ereduaren eta bizirik dagoenaren arteko distantzia aztertzen ditu, era horretan ondorio irigarri eta poetikoa sortzen duela. www.massimofurlan.com

Claire de Ribaupierre Massimo Furlanekin elkarlanean aritu da Massimok bere lehenengo lanak antzeztu zituenetik. Elkarrekin lan egiten dute proiektuak moldatzen eta eratzen. Aldi berean, Ribaupierrek ikerketak egiten ditu gaur egungo literaturaren eta irudiaren esparruetan. Argazki-artxiboaren egoera eta fikzioan duen interesa erakusten ditu *La novela genealógica. Claude Simon et Georges Perec* (Brusela, La Part de l'œil, 2002) idazlanean. Hainbat egilek egindako lan ugari zuzendu ditu, «dolua eta mamua» gaiari buruz, hala nola *El cuerpo desmayado, las imágenes repentinas* (Paris, Hazan, 1999), eta beste gai batzuei buruz: *La figura del idiota* (Paris, Léo Scheer, 2004) eta *La anecdota* (Zurich, JRP/Ringier-ECAV, 2007). Kolaboratzaile zientifikoa da Valais Kantonamenduko Arte Eskolan, eta bere ardurapean du MAPS (Master of Arts in Public Sphere) prestakuntzan eskaintzen den teoriaren programa, artearen munduko artista eta beste eragile batzuei zuzenduta.

Parte-hartzaileak

Parte-hartzaile bakoitzak lan hauek aurkeztu beharko ditu: berak egindako banako proiektu bat, sei asteko epean garatu beharrekoa; ikusizko materiala duen txosten bat; eta parte hartzeko arrazoiari buruzko azalpen labur bat.

Plazak mugatuta daude, eta aurkeztu diren guztien artean hautaketa egin eta gero, erabakia aukeratuei jakinaraziko zaie.

Proiektua era trinkoan garatuko da eta, beraz, ekainaren 9tik uztailaren 20ra bitartean horretan soilik aritzea eskatuko da, goizeko eta arratsaldeko ordutegian.

Antolakuntzak bere gain hartuko du Donostia eta Porto artean ekainaren 29an egingo den lekualdaketa, eta hostatu hartzea, hala eskatzen duten guztientzat, bi hirietako ikasle-egoitzetan.

Izen ematea

Izen ematea **maiatzaren 2a baino lehen** postaz bidali edo bulegoetan utzi behar da, helbide hauetan:

Arteleku Mugatxoan 2008

Kristobaldegi 14
20014 Donostia - San Sebastián

Fundação Serralves Serviço de Artes Performativas Mugatxoan 2008

Rua D. Joao de Castro 210
4150 - 417 Porto

Prezioa: 280 €

Informazio osagarria:
www.mugatxoan.org

Informazio orokorra:
T 34 943 453 662 (Arteleku)
T 351 22 6156580/81 (Fundação Serralves)
T 34 985 185 594 (La Laboral Escena)

e-mail:
info@mugatxoan.org
arteleku@gipuzkoa.net
ser.art.performativas@serralves.pt

Arte Zuzendaritza:
Blanca Calvo + Ion Munduate

Koproduzioa:



FUNDAÇÃO SERRALVES



laboral
ESCENA



Elkarlana:



Mugatxoan 2008

Ekaina 9-29/Donostia Arteleku
Ekaina 30-Uztaila 20/Porto Fundação Serralves